

Talde politikoak debekatu egin ditzakete Hego Afrikan

JOHANNESBURG

Hego Afrikako elkarte politikoak debekatu egin ditzakete abistau du Adriaan Vlok bertako Barne Arazaetarako ministroak. Asteburuan, berriro izan ziren Inkatha eta Afrikar Kongresu Nazionalaren (ANC) arteko borroka, eta 34 hildako izan ziren guztira. Vlok ministroak esan duenez, ez bada biolentzia egoera zuzentzen, talde politikoak legez kanpo jarri eta setio egoera dekretatu dezake Pretoriako Gobernuak.

ANCKo buruzagitzak bilteza erabaki zuen adierazpenok estudiantzako. Joan zen asteaz, Nelson Mandela ANCKo burua eta Frederik de Klerk lehendakaria konpromezu politikora heldu ziren, baina egoera berriro okertu da orain. Barne ministroaren adierazpenak ANCKren kontrako mehatxu gisa uler daitezke. Kontuan hartzekoa da ANC aspalditik ari dela Vlok ministroaren dimisioa eskatzen, talde parapolizialen antolakuntza nahastuta dagoen susmoak bait dituzte.

Gainera, Gobernuak ez ditu Inkatha mugimenduko Zulu etniako 'gudarien' armak debekatu, ANCK eskatu bezala, eta hori ere tentsio puntua da. Asteburuan, Inkathako mila lagunek eraso egin zioten Kagiso suburbioari, Johannesburg-en, beren lantza eta ezpata zuluekin armatuta, eta 27 lagun hil zituzten bertan.

Vloken dimisioa, zuluentzako debekua, eta biolentzia gelditzeko neurriak eskatzen ditu Mandelak Pretoriarekin negoziatzen segitzeko.

Errusiako errepublika autonomoak Kremlinarekin harreman zuzenean

Errusiaren agintetik askatzea dute helburu hainbat herri sovietarrek

Errusiako errepublika autonomoek SESBko Batasun Tratatu berria sinatuko dute zuzenean Mikhail Gorbaxov eta aginte zentralarekin, Errusiak berak sinatu aurretik. Errusiako 16 errepublika autonomoetako buruzagiak Gorbaxovekin bildu ziren asteburuan Kremlinan.

LUIS FERNANDEZ / DONOSTIA

Errepublika hauetan gogo nazionalista handitzen ari den seinale da akordioa. Errusia osatzen duten herriek puzzle etniko-geografiko oso bat marrazten dute mapetan, nahiz eta toki gehienetan «errusiartze» prozesua oso aurreratuta egon.

Herri hauen ikuspegitik, lehenik eta behin «Errusiarengandik askatu» behar dute, eta horretarako bidea eskaini die Gorbaxovek. Lehendakari sovietarrarentzat ere baliogarria da akordioa, Boris Ieltsin lehendakari errusiarraren posizioa indargabetezko urratsa izan bait daiteke. Ekainaren 12an Errusiako lehendakari-tzarako hauteskundeak dira, eta Ieltsin faborito nagusia izan arren, hautagai *gorbaxovista* gogorra atera zaio: Nikolai Rijkov lehen ministro ohia.

Tass albistearen arabera, errepublika autonomoek «Soviet Batasuneko partaide» gisa sinatuko dute Batasun Tratatua, baina baita ere «Errusiar Federakundeko partaide gisa». Nabardura honek badu garrantzirik, SESBko «partaide» soil gisa hartuz gero, ia errepublika nagusien parean jartzen bait dira. Azken urte honetan, errepublika autonomo hauetariko askok subiranotasun aldarrikapenak onartu ditu, eta Txetxeno-Inguxen kasuan, adibidez,



Ingux etniako ordezkariak Boris Ieltsin lehendakari errusiarrarekin. REUTER

Errusiako errepublika autonomoak			
Errepublika	Km. karratuak	Biztanleak	Bertakoak (*)
Baxkiria	143.600	3.950.000	% 23
Buriatia	351.000	1.042.000	% 23
Dagestan	50.300	1.792.000	% 79
Iakutia	3.103.200	1.081.000	% 36
Ipar Osetia	8.000	643.000	% 50
Kabardin-Balkaria	12.500	760.000	% 54
Kalmukia	75.900	322.000	% 41
Karelia	172.000	792.000	% 11
Komi	415.000	1.263.000	% 25
Mari	23.200	750.000	% 43
Mordvinia	26.200	962.000	% 35
Udmurtia	42.100	1.609.000	% 32
Tatarstan	68.000	3.640.000	% 47
Tuva	170.500	309.000	% 60
Txetxano-Ingux	19.300	1.277.000	% 64
Txubaxia	18.300	1.336.000	% 68

(*) Jatorrizko herriaren biztanlearen portzentaia.

Adibidez, Baxkiran, %23 bakarrik dira baxkiriarrak.

«independentziakoa» ere bai. Aldarrikapenotan Errusiarekin loturak mozteko gogoia erakutsi dute errepublikek, zuzenean aginte zentralarekin harremanak izatera pasatzeko.

Sezesio gogo berezia agertu du Tatarstan errepublikak (lehen Tata-

ria, espainolez Tartaria). Mintimer Xaimiev bertako lehendakariak adierazi duenez Tatarstanek «bakarrik SESBko partaide gisa» sinatuko du Tratatua, eta gero egingo dute beste trataturen bat Errusiarekin, oraindik zehaztu gabekoa.

Joan Paulo IIak abortua eta eutanasia kritikatu ditu Fatiman

DONOSTIA

Joan Paulo IIak Portugalen segitzen du bisita ofizialean. Eliza Katolikoko burua Fatiman izan da bertako Birjinaren omenez egiten den prozesioan. Bertan abortua eta eutanasia kritikatu ditu. Erlujioa eta politika nahastu egin dira bisitaldian, Joan Paulo IIak hitzaldian Eki Timor 'ahaztu' ondoren.

Kontua ostiralean gertatu zen arren, oihartzuna ez da isildu oraindik. Bisitariak Portugalek kristautasuna hedatzeko egin zituen ahaleginak goretsi zituen Lisboan. Hitzaldian Indonesia aipatu zuen Joan Paulo IIak, 1975ean Eki Timor kolonia ohia inbaditu zuena.

Plazan zeuden timortarren iritziz, Eki Timor ahanztiz Indonesia aipatu izana eta Kuwait barik Irak goratzea antzeko kasuak izan litezke. Fede katolikoaren ordezkariaren 'laban-kada' ez da portugaldarren gustukoa

izan eta Mario Soares presidentea eta beste gobernuakide batzuk halaxe adierazi dute pribatuan.

Asteburuan Azoreetan izan ondoren, Joan Paulo IIak Fatimara jo du, bertako agerkundeak gogoratu eta Birjinari eskerrak emateko Ali Agca turkiarraren atentatuan «bizia salbatzeagatik». Bide batez, Joan Paulo IIak Fatimako Birjina goratu du Eki Europako herriak «komunistik askatu izanagatik».

Fatiman jendetza itzela bildu da ohorezko bisitariaren meza entzuteko. Haien artean, 84 urteko serorea, Lucia de Jesus Santos, mende hasierako agerkundeen lekuko bizi bakarra. Lucia Coimbrako klausura komentutik abiatu da fatimara eta hamar minutuz bildu Elizako buruarekin.

Joan Paulo IIak abortua eta eutanasia kritikatu du Fatiman «Jainkoaren maitasunaren isla den bizia defendatzeko».

LABURREAN

HEGO KOREAKO ikasleak alderdi ofizialaren kontra

'Heriotzaren Brigadak' deritzen estudiante erradikal taldeak Hego Koreako Roh Tae Woo presidentearen partiduaren egoitza nagusia eraso du. Ikasleek bazkalorduan ekin diote erasoari eta etxebizitzan zaindari zeuden hamar polizia ezin izan dituzte kontrolatu. Azkenaldian ekintza gogorak gertatzen ari dira estatuko honetan gobernuaren politikaren kontra. Istiluak poliziak estudiante bat hil ondoren areagotu dira. Hau dela eta, hiru ikaslek su eman diote beren buruari protesta gisa.

MEDELLINEN 60 hilketa asteburuan

Gutxienez 60 pertsona hil dira asteburuan Colombiako Medellin hirian eta inguruetan, poliziak esan duenez. Iturri hauen arabera, hilketa batzuk futbol partiduen ondorioz gertatu dira, pertsona batzuk garaipena ospatzen ari zela jendeari tiro egin bait diote. Beste eskualde batzutan 'herri milizien' izeneko taldeek eragin dute triskantza Medellin-eko lapur eta droga saltzaileen kontra «garbiketa ekintzak» burutuz.

PAR IRLANDAN polizia ohia hil dute

Ipar Irlandako segurtasun indarretako partaide ohi bat hil egin dute Armagh hirian kotxean lehegailua jarritz. Robert Orr-ek 1976. urtean utzi zuen polizi lana. Hildakoa trafiko seinale baten ondoan zegoen eztanda gertatu denean. Aurten 25 pertsona hil dira jadanik eskualde honetan biolentzia politikoaren ondorioz. Ipar Irlandako poliziak uste duenez, IRA izan da atentatuaren egilea.

HAMASEI MILIOI dolar kurdien alde

'Simple Truth' kantaldian 16 milioi dolar bildu dira errefuxiatu kurduentzat. Londresen eratuak musika festa hau 500 miloi lagunek ikusi dute telebistaz. Bilgune nagusia Londres izandakoa ere, beste hiri batzutan ere antzeko ekitaldiak egin dira. 'Simple Truth' Chris de Burgh-ek kanpaina honentzat idatzi duen kantaren izena da. Diska aste honetan bertan izango da kalean salgai.



BANGLADESHEKO zorigaiztoek ez dute amaierarik.

Apirilak 29ko zikloi bortitzak jotako eskualdeetan desesperazioa da orain nagusi: irudian, janari sorta batengatik borrokan zauritutako gazte bat daramate bi gizonen artean. Laguntza gutxiegi da ezer gabe geratu diren milioika bangladeshtarrentzat. Beste hondamendi batzuk ere gertatu diren zikloitik hona: tornadoak, zikloi txikiagoak, uholdea iparraldean, eta gaixotasunak agertu dira jadanik. Metereologoen arabera, beste zikloi bortitz bat ari da eratzen Asian, eta Filipinetako kostalderantz doa 250 kilometro abiadurako haizeekin.